

## Elkar ulertu, irekitako zauriak orbaintzeko

Hasi dira 'Bizikidetzaz lantzen' jardunaldiak, bi biktimei buruzko kontakizunarekin. Xuban Intxausti herritarren 'In Dialogue' izango da ikusgai hurrengo saioan / 4



AITOR MANSO

**Aitor Manso kart pilotu gazteak bigarren denboraldia hasiko du goi mailan, zeresana emateko prest / 12**

**Udal Musika eskolako irakasle baten baja betetzeko arazoi irtenbidea eman nahi dio udalak / 02**

**Jon Antxordoki zerrendaburu gisa aurkeztu du EAJK, maiatzaren 26ko udal-bozetarako / 03**



## Musikaz betetako lan-bizitza

Tomas Ruti Parrak Euskadiko Orkestra sinfonikoan 36 urte egin ditu / 6-7

TXINTXARRI



## ATE IREKIAK

DBH (Batx. / DBH-ko eraikina)  
HH/LH (HH/LH-ko eraikina)

**URTARRILAren 26an 11:00etan**



**Matrikulazio epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**  
0-18 urte Lasartetik 5 minutura (Urnietan)

+ INFO [www.magaleikastetxea.eus](http://www.magaleikastetxea.eus)  
943 55 17 82 (HH · LH) / 943 55 17 89 (DBH · BATX.)



Musika eskolako ikasle eta gurasoek instrumentuak hartuta salatu dute egoera. TXINTXARRI

# Urte berrian ere musika irakaslerik gabe daude

Udal Musika Eskola solfeo, piano eta abesbatzako irakaslerik gabe dago. Gurasoek irtenbide bat eskatu diote udalari, eta musika instrumentuak hartuta protesta egin dute. Udalak deialdi publikoa egin du, hutsunea lehenbailehen estaltzeko asmoz

## Txintxarri

Piano, solfeo eta abesbatzako irakaslerik gabe eman zioten hasiera musika eskolako ikasturteari. Handik gutxira irakaslea topatu eta hasi ziren eskolekin, baina abendu hasieran baja hartu, eta ordezkorik gabe jarraitzen dute orduz geroztik. Egoera hori salatuzko protesta egin zuten pasa den astean, Manuel Lekuona kultur etxean.

Udaleko bi zinegotzirekin bilera egin dutela jakinarazi dute gurasoek. "Argibide bila joan ginen, soluzio bat eskatu genien, baina euren azalpenen arabera, funtzionamendu okerraren kausa halabeharra izan da. Hortaz, apartekoa dena normala omen

da". Egoeraren berri emateko mezu bakarra jaso dute familia kaltetuek: "Abisua jaso arte musika eskolak bertan behera geratuko direla azaldu digute".

Ikastaroaren bigarren hiruhilekoan sartuta, ikasleak musika eskola asko galtzen ari dira: "Aurten galdutako eskolen ondorioz, hurrengo urtean ikasturtea errepikatu beharko dute". Horren aurrean, "berehalako irtenbide bat" eskatu dute.

## Udalaren ahaleginak

"Udalaren zerbitzua eskasa da, etsigarria da arazoa kudeatzeko erakutsi diguten gaitasun eza", nabarmendu dute kaltetuek.

Horren aurrean, azalpenak eman ditu Jesus Zaballo alkateak. Lasarte-Oriako Udalak "zailtasun handiak" izaten ari da arazoa konpontzeko. Hautaketarako bide ugari agortu dituzte, eta deialdi publikoa egin dute, ahalik eta azkarren arazoari irtenbide bat emateko.

Pianoko erdi mailako ikasketak eta euskarazko hirugarren profila izatea ezinbestekoa da. Astelehenetik ostiralerako eskolak eman beharko ditu irakasle berriak. Astelehenetik ostegunera, 16:00etatik 21:00etara. Asteartean, 12:00etatik 14:30era, eta, ostiral goizean, 11:00etatik 14:30era. Interesa duenak 943 37 61 85 zenbakira deitu behar du.



TXINTXARRI

## Udal lokalei buruzko kontsulta

Elkarrekin funtzionamendu egokirako, beharrezkoa dute euren jarduerak betetzeko leku bat izatea. Horretarako, udalak jabetzan dituen lokalak erabili ahalko dituzte, herriarentzako mesedegarriak diren ekintzak antolatzen dituzten heinean. Edonola ere, lokal horiek uzteko araurik ez dago oraindik. Gainera, tramitatu aurretik, beharrezkoa da herritarrei hitza ematea. Hortaz, udalak kontsulta publikoa ireki du, otsailaren 8ra arte. Herritarrek proposamenak helarazi ditzateke, idatziz; erregistroan, udalaren webgunean, edo [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus) posta elektronikoa.



TXINTXARRI

## Lizardi Saria, Idoia Garzesentzat

Lizardi Saria Lasarte-Oriara iritsi da aurten, Idoia Garzesen eskutik. Herritarrek Zarauzko Udalak ematen duen saria irabazi du, *Hari single bat* lanarengatik. Lanaren 2.500 ale argitaratuko dituzte, ikastetxeetan banatzeko. Gainera, 4.000 euro jasoko ditu Garzesek. Epaimahaiaren arabera, "fantasiak eta giro onirikoak blaitua" dago istorioa, eta irakurlea ametsen eta errealitateen artean harrapatzen du. Iragana eta oraina lotu ditu Garzesek eleberrian. Hain zuzen, 1936ko gerraren memoria ekarri du idazleak.



Lasarte-Oria euskalduntzen lagundu nahi duzu?  
Jalgi taberna alokatzen du Ttakun Kultur Elkarteak.  
Interesa baduzu jarri gurekin harremanetan:

- Geltoki kalea 4-ko bulegora etorritz.
- Telefonoz 943 371 448 zenbakian.
- Emailaz [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) helbidean.



# Zerrenda "independentea eta gaztea" nahi du EAJk

Lasarte-Oriako EAJk ofizialki aurkeztu du hautagaia: Jon Antxordoki. Zerrendak osatzen ari dira oraindik jeltzaleak. Hauteskunde programari buruzko zertzelada batzuk eman ditu: enplegua, kultura, udal antolaketa eta Michelingo kirolgune berria

## Adrian Garcia

Lasarte-Oriako EAJk aurkeztu du maizteko udal hauteskundeetarako hautagaia: Jon Antxordoki. Lehendik ere jakina zen alderdiko bozeramailea izango zela zerrendaburua, baina ekitaldi batean aurkeztu dute ofizialki, Maria Jesus Iraola herriko EAJko presidentek lagunduta. Maiatzaren 26ko hauteskundeetarako aurkeztuko duten zerrenda oraindik ez dute publiko egin, baina "jende gaztea eta independenteak" bildu nahi ditu ondoan Antxordokik. "Batzokiak onetsi behar du aurretik. Hori gertatzean, jakinaraziko dugu", esan du Antxordoki berak.

Amaitzean dagoen legealdian egindako lana oinarri hartu du hautagaiak hurrengorako lan ildoak azaltzeko. "Gipuzkoako egoera ona da. Lasarte-Oriaren egindako lana ere baikorra da. Ondo jardun dugu legealdi honetan, bai nik gidatzen dudana Euskara Batzordean, baita egin ditugun beste ekarpenetan ere". Michelingo kiroldegi berriaren eta futbol zelaiaren adibideak aipatu ditu. "Alkatetzak kontuan hartu zituen".

Hauteskunde hauetan EAJk aurkeztuko duen zerrendak



Jon Antxordoki eta Maria Jesus Iraola Batzokiko presidentea. TXINTXARRI

desberdintasunak izango ditu. Hori iragarri du behintzat Antxordokik. "Aurrekoak baino zerrenda gazteagoa nahi dut. Betiere, eskarmentudunen esperientziak baliatuta. Askotan egozten digute alderdi tradizionala garela, baina begi bistakoa da gazteek bozkatzeko gaituztela".

## Hauteskunde programa

Aurkeztuko duten programari buruzko zertzelada batzuk ere eman ditu hautagaiak. Enpleguari buruzko "ideia pare bat" ditu Antxordokik. Bestalde, Kulturaren

esku sartu nahi du. "Jaungoikoaren eskutik utzita dago". Udaleko zerbitzuak ere hobetu nahi ditu. "Udaleko langileak antolatzeke lana egiteko dago, nahiz eta, behar bada, herrian hori ez den antzematen". Eta kirol planarekin aurrera jarraituko dute. "Gauza gutxi egin dira legealdi honetan".

Iraolak ere parte hartu du EAJren aurkezpenean. 1932. urtean inauguratu zuten jeltzaleek Batzokia, eta ordutik alderdiak izan duen lehen presidente emakumea da.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

## Estandarra

Aspaldian izan gabeko ostatu batera joatea bururatu zitzaidan aurreko batean; eta ez nuen nolana sorpresa hartu eraberriturik ikusi nuenean. Berritu ala hil, dio esakerak, eta han ere berdin. Egia esan behar bada, garbi, txukun eta zaindua zegoen, baina... Baina zerbait falta zitzaion: berea zuen nortasuna.

Azken urteotan gure inguruan gertatzen ari den itxuraldaketa estandarri buruz ari naiz. Euskal Herriko nahiz kanpoko hiriburu gehienak berdintsu bilakatzen ari dira. Hiriguneetan, kaleen luzera, zabalera eta izena besterik ez da desberdin; gainontzean, ia guztiak patroi berdinarekin egina dirudi, arkitekto edo diseinatzaile bakar baten lana izango balitz bezala. Erdiguneko kaleak multinazional eta saltoki handiekin josirik daude, izan Berlin, Madril edo Donostia, non biztanleok kontsumoaren sare biziosan erraz erortzen garen. Taberna eta jatetxeak ere joko berean sartuta, nortasun berdineko lokalak non-nahi zabaltzen dira, frankizia eta negozio-kate handien arau eta baldintzen morroi asko eta asko. Halaber, gure janzkera ere estandarizatu egin da. Artaldean ardi beltza desberdintzen den bezala, gurean, berriz, norbanakoa desberdintzea da zaila, moda jarraiki, kolore, diseinu, oihala eta osagarri antzekoak baitaramatzaiz. Guk geuk sortu dugu gizarte estandar hau, norbanakoa ahulduz, nortasuna galduz, eta molde hermetiko baten barnean noraezean dabilen artaldea osatuz.

Inperio handiak erorita, aldaketak beti gertatu izan dira. Agian, gizarte estandar honek ere noizbait egingo du eztanda.

## Ireki dute aurtengo inauterietarako diru laguntzen deialdia

Lasarte-Oriako Udalak ireki du dagoeneko aurtengo inauterietarako diru laguntzak eskatzeko epea. Guztira 12.599 euro zuzenduko dizkio programa honi. Inauteriak martxoko lehenengo asteburuan ospatuko dituzte herrian.

Inauterietan zerikusia duten jarduerak garatuko dituzte pertsona fisiko edo juridikoak eskatu ahal dituzte laguntzak. Urtarrilaren 25era arteko epea dago.



lazo inauteriak. TXINTXARRI

**La Salle Berrozpe Ikastetxeak eskaintzen dizkizu:**

**GARRAIO PROPIOA**

Lasarte  
↑↓  
La Salle Berrozpe

**HAURTZAINDEGI-ZERBITZU ZABALA**

Egunero · Gabonak ·  
Aste Santua · Uda.

**ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK**

Yoga, zirkoa, wushua, jazz dantza, euskal dantza, balleta, play time, euskara jolasean...

**LAGUNTZA GELA**

Behar bereziak lehen bait lehen detektatu.  
Plan pertsonalizatua.

Thailandia

AZKEN 2 PLAZAK

NOAOA BIDAIAK

IRTEERA 2019ko MAIATZEAN

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

# Elkarrizketaren indarra, Euskal Herriari begira

Xuban Intxausti lasarteoriatarren 'In Dialogue' dokumentala emango dute datorren asteazkenean, Mirentxuenean. Irlandako gatazkako sei eragile mahaiaren bueltan eseri ditu. 'S(u/a)minetik bakera' lanak ireki ditu 'Bizikidetza Lantzen' jardunaldiak

## Adrian Garcia

Hasi dituzte *Bizikidetza Lantzen* jardunaldiak Lasarte-Orian. Joan den asteazkenean *S(u/a)minetik bakera* ikus-entzunezko proposamena eman zuten, Mirentxuenean. Patxi Lurrak zuzendu du lana, eta bi narratzaileen bitartez, irudiak tartekatuz, Arrasateko bi emakumeren dolua kontatzen du. Antzekotasun asko ditu bi pertsona horien minak eta suminak. Bata Olatz Etxabe da, Batallon Vasco Españolek hil zuen Iñaki Etxaberen alaba. Bestea, Sandra Carrasco, ETAK hildako Isaias Carrascoren. Ana Galarragak eta Lurrak berak jarri diote ahotsa lanari.



Olatz Etxabe eta Sandra Carrasco dira lanaren ardatz. TXINTXARRI

Jende ugari erakarri ditu ekitaldiak. Tartean, udalean ordezkariak duten alderdien hautetsiak. PSE-EEren partetik, Jesus Zaballos alkatea, Jose Mari Urdanpilleta eta Maite Iglesias zinegotziak; EH Bilduko Pablo Barrio; ADLOPeke David Ares; eta EAJko Jon Antxordoki izan ziren bertan.

Hurrengo bi asteetan ere emango dituzte emanaldiak. Asteazkenean, 19:30ean, Lasarte-Oriako herritar batek zuzendutako lana: Xuban Intxaustiren *In Dialogue*. Ipar Irlandako gatazkan ikuspegi guztiz desberdina duten sei eragile bildu ditu mahai berdinarean bueltan.

AEBetan dago orain zuzendaria, baina telefonoz jarri da harremanetan harekin TXINTXARRI. "Elkarrizketaren ikuspuntua ematea erabaki genuen, garai horretan Euskal Herrian horixe falta zela ikusi baikenuen". Izan ere, nahiz eta dokumentalak Irlandako gatazka aztertu, egileak aitortu du Euskal Herrira begira egina dagoela. "Gure egoeraz hausnartzea, hori egon zen abiapuntuan".

Mahaiaren bueltan eseri dituztenak badute ezaugarri komun bat: arerioak izateaz gain, denek parte hartu dute ere erakunde militarren batean. Poliziak, IRAko kide ohiak, armadakoak eta talde paramilitarretakoak dira denak. "Biktimak gizartean lekua bazutela ikusi genuen, baina ez horrenbeste gatazkan aktore gisa jardun dutenak".

## "Beste modu batekoa"

Tirabira batzuk izan arren hasieran, elkarrizketetan parte hartutakoek "gozatu" egin zuten, Intxaustiren hitzetan. Horietao batzuk ere lagun min egin dira ordutik.

Bizikidetza lantzeko hainbat eztabaida eta ariketa egin dira Euskal Herrian, biktimen artean batez ere. Baina euskarri berbera hona ekartzea zaila ikusten du Intxaustik. "Beste modu batekoa da Irlandako gatazka. Ez dakit ETA eta GALEko kideen arteko elkarrizketa bat egin daitekeen hemen". Halere, konponbidea bide onetik doala uste du zuzendariak, "nahiz eta presoen auzia tratatuta egon".

txintxarri aldizkariak

banatzaileak behar ditu

ostiraletan herrian aldizkaria banatzeko.

Kotxea edukitzea eta lasarteoriatarra izatea lehenetsiko da.

Deitu 943371448 telefonora edo bidali zure kurrikuluma: txintxarri@txintxarri.eus

Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteak bazkideen artean!

'BIZI BARATZEA' garaian garaikoa garaiz' Jakoba Errekondoren liburua + 2 CD zozketatuko ditugu.

Eman izena urtarrilaren 27a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.



Bazkideetza informazioa



@TtakunKE



# Danbor hotsez girotuko dituzte ikastetxeak

San Sebastian eguna ospatuko dute gazte lasarteoriatarrek gaur arratsaldean, ostiralean. Soinerako apaingarriak prestatu dituzte egunotan, eta danborrak astinduko dituzte Landaberriko eta Sasoeta-Zumaburuko ikasleek

## Txintxarri

Makilak eskuetan hartu eta gogoz astinduko dituzte danborrak Lasarte-Oriako gazteek. Landaberriko zein Sasoeta-Zumaburuko ikasleek danborrada egingo dute gaur arratsaldean. Kapela eta amantala zuriak apaintzen aritu dira egunotan, San Sebastian eguna behar bezala ospatzeko, eta dotore aterako dira ikastetxeetako patioetara.

Zumaburuko haurrak 15:00etan bilduko dira auzoko Isla plazan. Donostiako martxa, Diana eta Tatiago doinu ezagunak joko dituzte, beste hainbaten artean. Sasoetako ikasleek, berriz, 15:45ean egingo dute danbor erakustaldia.

Landaberri ikastetxeek ere joko dute danborra. Garaikoetxea eraikinean, 16:00etan bilduko dira danbor doinu ezagunak jotzeko, eta Landaberri eraikinekoek ere ordu berean ospatuko dute danborrada, erdiko



Sasoeta-Zumaburuko haurrak iazko danborradan. TXINTXARRI

patioan. Igandean ere izango dira beste lasarteoriatar batzuk Donostian, bertako eskoletan aritzen direnak.

Eguraldi txarrak mehatxu egin du egunotarako, eta baliteke gaur euria egitea.

Hala gertatzen bada, Zumaburuko haurrek eliza ondoko patiora lekualdatuko dute erakustaldia, eta Sasoetako ikasleek, berriz, Loidibarrengo pilotalekuan joko dituzte danborrak.

## 2019ko udan Saharako haurrak etxean hartzeko deia luzatu dute

'Oporrak Bakean' programak aurtengo kanpainaren berri eman du. 'Orain bi familia ditut', da aurtengo leloa

### Txintxarri

10 eta 12 urte bitarteko Saharako haurrak udan etxean hartzeko deia luzatu du *Oporrak Bakean* programak. 2019rako programa martxan jarri dute jada, eta leloa ere aurkeztu dute. Programan parte hartu duten Saharako haurren eta horien Euskal Herriko harrera familien sentimendua bildu dute aurtengoan: *Orain bi familia*

*ditut; bat Saharan eta bestea Euskal Herrian.* Bi hilabetetako egonaldiak laguntza handia ematen die Saharako haurrei: "Desertuko baldintza gogorretatik aldendu daitezke".

Interesatuta dauden familiek *oporrabakean@gmail.com* helbidera mezu bat idatzi dezakete, edo Gipuzkoako ordezkari zara, 696014786 telefono zenbakira, ere dei dezakete.

## Helduentzako egur taila ikastaroa eskainiko dute

Kultur etxean bertan eman beharko dute izena otsailaren 4ra bitartean. Helduei zuzenduta dago ikastaro irekia

### Txintxarri

Egurra tailatzen ikasteko aukera izango dute herritarrek, otsailetik aurrera. Kultur etxeak antolatzen dituen 5+1 ikastaro irikien barruan antolatu dute, eta izen ematea zabaldu dute jada.

Otsailaren 4ra arte apuntatu ahal izango dute interesatuek, eta bi prezio ezarri dituzte. Lasarte-Orian erroldatutakoek

185,25 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteentzat, berriz, 308,75 euroko prezioa finkatu dute.

Astelehenetan izango dira saioak, 17:30etik 20:30erako ordutegian, otsailaren 4tik abenduaren 4ra. Hizkuntza ikasleen euskara mailaren arabera zehaztuko dela jakinarazi dute antolatzaileek.

**Lasartekoentzat zerbitzua!!**

**Udarregi**  
IKASTOLA

**Matrikulatzeko epea** (3 urtetik-16 urtera)  
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra (biak barne)

**Ate irekiak**  
Urtarrilak 26, 10:30ean jangelan.

**50**  
urteko esperientzia

943 361 216

Gernika ibilbidea. USURBIL  
www.udarregi.eus



- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza (0-16 urte bitarte).
- Euskalduna. Euskal Herriko kultura eta herri ekintzetan murgildua dagoena.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullyng) aurkako programa indarrean.
- Eleanitza: ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa DBHn.
- Orientazioa ikasle eta gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Berritzailea: Teknologia berriak ardatz.
- Autobus zerbitzua: Lasarte, Zubieta, Santuenea, Aginaga
- Jangela: Bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- Goizeko Zaintza: 8:00etatik 9:00etara urte osoan. Iraila eta ekainean 14:30etik 16:30era ere.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, antzerkia, xake eta robotika.
- **Beka sistema propioa: kuoten % 100.**

**Nerea Eizagirre**

2018ko abendua hilabete berezia izan da Tomas Ruti Parra (Madril, 1953) fagot jolearentzat. 65 urteak bete eta erretiroa hartu du. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kide izan da haren sorreratik, 1982 urtetik. 36 urte hauetan hamaika bizipen pilatu ditu, baina bereziak izan dira abenduan Alemania eta Austriara egin duten bira eta azken kontzertuak.

**Denboraldiko abenduko kontzertuan omenaldi txikia egin zizuten.**

Lore sorta bat eman zidaten eta negarrez hasi nintzen, orkestra erdia ere. Oso hunkigarria izan zen. Kontzertu osoan emozioa mantendu nuen, baina momentua iristean eztanda egin nuen. Oso pozik nago. Jende asko gerturatu da niregana, espero ez nuen jendea. Lankideak eta orkestra erakunde bezala agur ederra egin didate. Espero nuena baino gehiago izan da.

**Ostean, Alemania eta Austriara egin duzu bidaia, eta azken kontzertuak egin dituzu.**

Orkestrako lehen bira egin genuen leku batzuetara joan gara. Linzen eta Munichen jo dugu, esate baterako. Oso polita izan da. Oroitzapen politikak ditut.

Azken kontzertua *Diario Vasco*-ko kontzertua izan da, abenduaren 19an. San Tomas egun bezperan eta nire urtebetetze egunetik gertu. Juanjo Oconek zuzendu zuen. Urte asko dira elkar ezagutzen ditugunak eta nik agurtzea nahi zuen. Baina momentua ez zela esan nion. Bi abesbatza, dantzariak, etb zeuden. Oso kontzertu ederra izan zen, hunkigarria.

**Orain erretiroaz gozatuko duzu, ezta?**

Jende askok esan dit orain gustuko dudan zerbait egin ahal dudala, baina zorionez gustuko dudan zerbaitetan egiten nuen lan.

Ez da gustuko dudana gauza bakarra, Argazkilaritza gogokoa dut eta kamarekin eta ordenagailu aurrean orduak egiten ditut, Photoshopen. Irakurtzea ere gustuko dut. Beste ekintza batzuk ere egiten ditut.

Niretzat lan egitea ez zen nekaldia. Egun batzuk bazeuden etxean lan egiteko gogorik ez nuela, baina hurrengo egunean entsegua nuen eta nire lana zen. Ganbera musikan ere jarraituko dut.

**Nola erabaki zenuen musikari izan nahi zenuela? Eta zergatik aukeratu zenuen fagota?**

Nik instrumentuak nire kasa ikasita jotzen nituen. Gitarra,

# "Zorionez, gustuko nuen zerbaitetan lan egiten nuen"

**TOMAS RUTI PARRA FAGOT JOLARIA**

36 urte Euskadiko Orkestra sinfonikoko kide izan ostean, erretiroa hartu du Tomas Ruti Parrak. Ez dio musika egiteari utziko, baina beste zaletasun batzuentzat denbora gehiago izango du orain

txirula, armonika... orduan eskura nuena. Abestea ere gogoko nuen.

Baina Orkestra nazional sinfonikoaren kontzertu batera joan nintzen. Lagun batek sarrera bat zuen libre eta berarekin joateko eskaini zidan. Mahlerren lan bat eskaini zuen, gaizki ez badut gogoratzen. Bertan ginela lagunak esan zuen ze polita izan behar duen hori barrutik entzutea, eta horrek nigan eragina izan zuen. Lehen aldia zen entzuten nuena eta guztiz ulergaitza bazen ere niretzat, hunkitu ninduen.

Eta momentu horretatik aurrera instrumentuak begira hasi nintzen. Nik guztiak nituen gustuko, baina Vivaldiren fagoterako kontzertu batetako diskoa entzun eta maitemindu egin nintzen. Solfeo ikasten hasi nintzen eta ez nuen instrumenturik. Fagotak 78.000 pezeta balio zuela jakin nuenean, imajinatu dezakezu. Edonork ezin zion aurre egin. Hala ere, urte batzuk geroago, nire gurasoek itsuan erosi zuten. Nigan sinetsi zuten.

**Nola izan zenuen Euskadiko Orkestraren sorreraren berri?**

Espainiako aldizkari guztietan jakinarazi zuten Euskal Herriko orkestra sinfonikoa izango zena sortuko zuela Euskal Erkidegoak. 1981ko abuztua zen. Esango nuke Erkidegoko bateko lehen orkestra zela, gerora sortu ziren beste batzuk.

**Eta animatu zinen...**

Postu guztiak eskaintzen ziren. 1981ko irailean oposaketak egin

ziren, eta aurkeztu nintzen. Espainia guztiko jendea etorri zen, eta zortez hartu ninduten. Lasarte-Oriara etorri ginen bizitzera alokairuan pisu bat aurkitu genuenean. Geroztik hemen nago.

**Musikari asko geratzen al da lehen oposaketa horretatik?**

Hamar edo hamabi pertsona daude oraindik orkestran. Eta urte horretan orkestra osatzeko egin ziren beste oposaketetako jende asko ere mantentzen da, batzuk Lasarte-Oriara bizi dira. Guretzako zorte handia izan zen orkestra zerotik hasia.

Prestakuntza eta zortea izan behar da. Balio handia duen jende askori zortea falta izan zaio, lanbide guztietan bezala.

**36 urte hauetan, lankide ugari izan dituzu, beraz.**

Bai, horrela da. Batzuk zoritxarrez ez daude gure artean. Gogoan ditut Juan Etxebeste Irungo biolinista, Jose Carrera Tolosako perkusionista... jende oso atsegina. Asko izendatu ahal ditut. Beste asko denbora gutxian egon dira orkestran.

Baina guztiak utzi dute zerbait, musikari, zuzendari edo bakarlari

**"ZORTEA IZAN BEHAR DA. BALIO HANDIA DUEN PERTSONA ASKORI ZORTEA FALTA IZAN ZAIO**

izan. Gauza txarrak ere uzten dituzte noski, baina horietaz ere ikasten da.

Gainera, taldeko gehiengo urte batzuk daramatzagu elkarrekin lanean. Oso garrantzitsua da bloke egonkor bat egotea. Izan daiteke noizbehinka kide berriak etortzea, azken urtean bezala, baina oinarri bat dago taldean. Errazagoa da bat atalera moldatzea, bi edo hiru baino. Nire ustez, hori da orkestrak hainbeste urtez maila onean lan egitearen arrazoia.

**Lehen entseguak Miramar jauregian egin zenituzten, ezta?**

Bai, horrela da. 1982ko apirilean hasi ziren entseguak. Guretzako luxu bat zen hori. Imajina, Madrilen bulego batean egiten nuen lan. Bulegoa Miramar jauregiagatik aldatzea, Kantauri itsasoa ikusten... Bi saloitan egiten genuen lan.

Gainera, hasieran ez genekien zein izango zen egoitza, hiru hiriburuetakoa bat izango zela bakarrik aipatu ziguten.

Hilabete gutxira, Bellas Artesera aldatu ginen. Itxia zegoen eta besaulki-patioa egokitu zen guretzako. Plataforma batzuk jarri ziren atrilak jartzeko, eta kaleko

**"SORRERAN AHAL ZEGOENAREKIN EGITEN ZEN LAN. EZ ZEGOEN GAUR EGUNGO AZPIEGITURARIK**

argiak jarri ziren. Ahal zena ekarri zuten. Zegoenarekin egiten zen lan. Gainera, gehienak orkestra munduan esperientzia gabeak ginen.

Horrek ez du zerikusirik gaur egungo azpiegiturekin edo balibideekin. Zaila izan zen, baina polita.

**Noiz hasi zineten kontzertuak eskaintzen?**

Orkestraren lehen urtean, hau guztia guri eskutitzez iristen zitzaigun, formaziorako izango zela esan ziguten. Baina momentua iritsi zenean, gogoak edo irrika zegoelako, guztia aurreratu zen. Guk ere kontzertuetan aritzea beharrezkoa zen.

Horrela, lehenengo kontzertuak Euskal Herrian zehar egin genituen. Aurkezpen bira izan zen Bizkaia era Arabatik barrena, Kanpetzu, Aramaioa, Balmaseda... Bidaia pila egin genituen Irunen izan zen lehenengoa, 1982ko ekainaren 24an, Junkaleko elizan Ametsa abesbatzarekin.

Egitarau bat edo bi genituen. Ez da orain bezala, asteke edo bi astean behin egitarau bat osatzen dugula. Orduan partitura pila genituen atrilean, 15-20 bat eta denak prestatzen genituen. Eta horren arabera osatzen zen kontzertuetako egitaraua. Ilusioa handia genuen.

**Eta Hamabostaldian izan zen estreinaldi ofiziala...**

Hori esan daiteke. Verdiren *Requiem*-a eskaini genuen. Ez ditut abeslari guztiak gogoan, baina Carlo Bergonzi tenorea zen horietako bat, eta bere azken kontzertuetako bat izango zen.

Frakak emanaldi horretarako egin ziren, ordura arte alkandora zuri eta galtza beltz batzuekin joaten ginen.

Eta urrian eman genuen gure denboraldia lehen kontzertu ofiziala. Nicanor Zabaleta izan zen zuzendaria.

**Noiz egin zenuten lehen nazioarteko bidaia?**

1984ko ekainean izan zela esango nuke. Ez nago ziur, agian Bordelera joan ginen kontzertu baten bat ematera. Baina lehen bira luzea Alemaniara izan zen. Alemaniara autobusez joan ginen eta 18-20 bat eguneko bidaia izan zen. Orduan ez zeuden gaur egungo azpiegiturek eta autobusez joan behar izan ginen.

Odon Alonso zen zuzendaria eta solista ere eramane genuen. Bira horretarako egitarau ikusgarria zen. Manuel de Fallaren *Sombrero*



Tomas Ruti, Carlos Rosat eta Itsasne Fernandez hirukoa Atsobakar zahar egoitzan eskainitako emanaldian. TXINTXARRI



Omenaldi txikia egin zioten Tomas Rutiri denboraldiko abenduko kontzertuan. EUSKADIKO IRKESTRA

de tres picos laneko suitea, *Euskal Melodiak*, *Concierto de Aranjuez*...

Arrakasta duten lanak ziren eta jendeak espero dituenak. Bira polita izan zen eta herri askotan egon ginen.

**Alemania eta Austriara behin baino gehiagotan joan zarete...**

Bira asko egin ditugu, orain ez ditut guztiak buruan. Musika eskaera handia dago herrialde horietan.

1984ko iraila-urria aldera, Patrick Juzeau frantziarrarekin, gure bigarren zuzendari titularrarekin joan ginen. Schuberten 9 sinfonia, D 944, *Handia* genuen egitarauan.

**"EGUNERO 4 ORDU BAKARRIK ENTSEATZEN DUGULA DIRUDI. BAINA BAKARKAKO LAN ASKO DAGO ATZEAN**

Salzburgon, Festpielehausen, bi kontzertu ere eskaini genituen, ballet nazionalarekin eta *Sombrero de tres picos* osoa egin genuen. Arrakasta handia izan zen eta ikusle asko hurbildu zen, nahiz eta orkestra ez ezaguna izan.

Passaura, Alemania, askotan joan gara Europäische wochen jaialdira. Berta behin, Mischa Maisky txelo jole letoniarrekin joan ginen Dvorak-en txelo kontzertua jo genuen.

Bira luzeena eta arrakastatsuen 1992ko urria azaroa izan zen. Kontzertu asko egin genituen, hogeitaz egunetan hamazazpi

**"PENA BAT DA BESTE HERRIALDEETAN MUSIKA ARLOAN EGITEN DENA EZ KOPIATZEA**

kontzertu, ia kontzertua eguneko. Miguel Angel Gomez-Martinez zen orduan zuzendari titularra eta Pepe Romero gitarra jolea izan zen solista, oso trebea. *Concierto de Aranjuez* jo genuen, aurretik Ravelen *Rapsodie espagnole*... Egitarau borobila zen eta arrakasta handia izan zen. Munich, Hamburgo, Viena, hiri handietan izan ginen.

Euskal Herria saltzeko ere baliatzen ziren lehen bidaia horiek. Diptikoak edo informazioa jartzen zen aulkietan. Gerora *Ven y cuentalo* eta horrelako kanpainak egin dituzte.

Gerora, beste herri batzuetan ere izan gara. 2000 urtean Italia eta Argentina; 2017an, Argentina eta Brasil.

**Donostian dago egoitza, baina Euskal Herriko beste hiriburuetan ere kontzertuak eskaintzen ditu.**

Orkestra oso bidaiaria da. Jendeak Donostiakoa dela esaten duen arren, Bilbon, Iruñean eta Gasteizen ere asko jotzen dugu.

Egia da Donostian bazkide gehien dagoen lekua dela. Hemen ez dago lekurik hainbeste jenderentzat, Kursaal aretoa bitan betetzeko haina dugu. Horregatik ohikoa da orkestrak Donostian egun gutxitako epean bi kontzertu eskaintzea. Beti dago beteta.

Iruñean ere jende asko dago. Gasteizen gero eta entzule gehiago dago. Orain Principal antzokian jotzen dugu. Lehen ez dut izena gogoratzen, zinema antzeko batean zen eta familia giroan jotzen genuen. Eszenatokian besaulkipatioan baino gehiago ginen. Baina hori asko aldatu da.

Bilbon ere, nahiz eta bere orkestra izan, jende asko izaten da gu entzuten. Musika eskaera handia da gaur egun.

**Zenbat denbora behar du orkestrak kontzertu bat prestatzeko?**

Lehen entsegu aste bat egiten zen eta hurrengo astean kontzertuak egiten genituen. Orain aretoen arabera, zuzendari eta solista gonbidatuen arabera finkatzen dira kontzertuak. Beraz, horretara moldatu behar da. Kontzertu bat prestatzeko hiru edo lau egun izaten dira normalean. Egun batzuetan entsegu bikoitza egin behar da.

Hala ere, guztia prestatzeko denbora dago. Kontzertuen egitarauak eta partiturak aurretik izaten ditugu eskura. Artxiboan dago guztia. Estreinaldien kasuan larriago ibili gaitezke. Horrela lanak eskatu eta etxean lan egin behar dugu.

**Zuen lanean ikusten ez den lan asko dago, ezta?**

Bakarkako lan asko dago. Ez da plaza ateratzea eta listo. Guk egunero 4 ordu entseatzat ditugula dirudi eta listo. Baina ordu horien atzean bakarkako lan asko dago. Bakoitzak obrak ikasi behar ditu, noski. Zerbait ez baduzu ongi egiten, zure lana da konpontzea, ez dizu inork lagunduko. Lan hori orkestraren lanean eta mailan antzematen da. Zuk maila horrekin bat joan behar duzu, bestela ipurdia agerian duzu.

Eta lan guztietan bezala eguneratzea ere ezinbestekoa da. Oposaketa berri bakoitzean sartzen den jendea prest dator, eguneratuagoa hainbat alorretan eta zuk ere maila bera eman behar duzu. Zure lana da. Baina hori normala da.

**Baina zuen lana besteak baino atseginagoa dela esan daiteke.**

Zorionez, gure lanean ongi egiten baduzu, jendeak txalotzen zaitu. Beste lanbide batzuetan zailagoa da hori.

Musikariek badugu handikeria puntu bat, eta jendeak entzutea eta txalotzea gustuko dugu. Eta horrek asebetetzen gaitu. Zergatik ukatu. Bestela ez ginateteke jendearen aurrean jarriko. Jende ugari beldur dio. Beldur eszenikoa ere izan dezakegu. Artista guztiok izan dugu momenturen batean.

**Aipatu duzu ganbera taldeetan jarraitzeko asmoa duzula...**

Carlos Rosat, Mario Telenti piano jolea, Tomas nire semearekin biolin jolea dela, edo Itsasne Fernandez Irunge klarinete jole batekin hiruko taldeak osatzen ditut. Gogoko ditugun gauzak egiten ditugu eta gehienetan musu-truk. Danok Kide eta Jesus Mari Egizabalen eskutik Ama Brigitarren komentuan behin baino gehiagotan jo dugu, baita

Atsobakarreko erresidentzian ere. Guretzat gogobetegarria da, jendeak eskerrak ematen dizkigu, baina guk ere ederki gozatzen dugu. Horrelako gauzak egiten dituzunean, betebeharra ez denean, gozatzen dugu. Bestela ez genuke egingo.

Orkestran ere, haize instrumentuetarako ganbera taldeetan parte hartu dut, Mozart edo Haydn zortzikoak edo seikoak egin ditugu. Beethoven ere asko jo dugu. Taldean gozatzen duzu eta giro ona egon ohi da horrelako taldeetan.

**Irunge kontserbatorioan ere irakasle lanetan ibili zinen.**

Hamazazpi ikasturte egin nituen Niretzat esperientziarik politena izan zen. Zorte handikoa izan nintzen eta ikasle paregabeak izan nituen fagot eta ganbera gaietan. Lan egiteko gogo handiak zituzten gazteak ziren.

Lanbidea maitatzen irakatsi nahi izan nien. Edozein irakaskuntzatan bezala, ikasleak motibatu behar dira, oinarritzkoa da. Ez dira ikasleak gutxietsi behar, ez zaie horretarako gai ez direla esan behar. Bakoitzaren trebetasunez baliatu behar zara.

Ikasle askok bere ikasketak amaitu dituzte edo Musikenara joan dira edo nazioartean dabilta. Nire lehen ikaslea Amezti Gojenola Bilboko Musika eskolan dago eta Cristian Garcia oposaketak egiten ari da Europa osoan zehar. Beste batzuk ez zituzten goi mailako ikasketak egin, baina momentu onak izan zituela esan daiteke. Izan ere, ez da irakaskuntza arlo profesionalera bakarrik mugatu behar. Nire ustez hezkuntza musikala pertsonaren garapenerako garrantzitsua da. Koordinazioa lantzen da, batez ere. Taldean jotzea, beste gazteekin egotea... sozializazioa garatzen da. Ikasketak hasi eta gutxira kontserbatorioko bandan daude eta ganbera taldeetan. Gero agian ez dira musikariak izango, baina positiboa da.

Hezkuntza musikala ere asko aldatu da. Nik izena eman nuenean, egun batetik bestera izan zen eta ez zegoen ia ikaslerik. 40 urte pasa dira. Orain eskaintza zabalagoa dago eta eskaria ere handia da. Baina egiten den guztia nire ustez gutxi da. Batxilergoan, DBHn... Pena bat da beste herrialdeetan egiten dena ez kopiatzea. Ez dut esan nahi guztiok piano bat edo biolin bat erosi behar dutenik. Baina musika sustatu behar da.

# PLAZAN BAZAN



## Han eta Hemen

Begiratu ongi bi irudi hauei. Badira zortzi gauza bi eszenetan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



## Itzala

Zein da korrika ihesi doan horren itzal zuzena?

**DOMINOAN**

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.







Zenbat katilu ikusten dituzu?




Zazpi irudi-zati hauetatik 4 engainariak dira. Alegia, ez daude beheko irudi nagusitik hartuta. Zeintzuk dira?

# Irudi engainariak



Ikusten al dituzu bi irudien arteko aldeak? Hamar dira guztira.

## Hamarrekoa



# Lehenengo pilotakadatik izan dira nagusi kantxan

Ezin hobeto ekin diote Udaberri txapelketari Intza elkarteko bikoteek. Jon Pello Artetxe eta Asier Katalinak 6-22 irabazi diete zumaiarrei, eta 22-13 gailendu dira Haritz Urkia eta Mikel Elola oriotarren aurka. Aurrean zein atzean nagusi izan dira herritarrak

## Ilñigo Gonzalez Sarobe

Intza Zumaiaren aurka. Arratsaldeko lehenengo pilota partida. Lau pilotariek zaleak agurtu eta gero, zozketa, sakea erabakitzeko. Jose Felix Solano epaileak airera bota zuen txapa. Sakea, gorri. Pilota azkarra eta bote askokoa aukeratu zuten zumaiarrek. Hor hasi ziren neurketa galtzen, materialaren ezaugarri horiek hobeto aprobeatxatu zituelako Intzako bikoteak.

Lehenengo tantoa, dena den, gorriekin egin zuten. Asier Katalinak ezin izan zuen pilota behar bezainbeste altxa bederatzigarren koadrotik. Apenas galduko zuen beste pilotarik partida osoan. Banakoa ezarri zuten urdinek gero, eta erabaki zuten ez utzela pilota aldatuko, gustura ari zirelako horrekin. Bete-betean asmatu zuten Intzako pilotariek, berehala hasi zirelako markagailuko aldeak handitzen. Ikusleak



Hamabost tanto egin zituen Artetxek ostiraleko norgehiagokan. TXINTXARRI

konturatzerako, 1-4 jarri ziren aurretik. Bi tanto egin zituen Artetxek tarte horretan: sakez aurrea eta bi pareta eder batekin bigarrena. Zumaiako atzelariak komeriak izango zituen sakeak behar bezala erantzuteko,

hirugarren tantoan ikusi zenez. Urdinen erritmoa apurtxo bat etetea lortu nahi zuten zumaiarrek bigarren tantoa eginda eta pilota aldatuta. Motelago batekin probatu zuten, baina nahi baino gutxiago iraun zien estrategia

horrek, aurrelariak kanpora bota zuelako ezker gantxoak. 2-5, eta hasierako pilota berriro. Hor bukatu zen norgehiagoka: 0-14ko partziala sartu zieten gorriei Artetxek eta Katalinak. Tantoak, era guztietakoak: sakez, txokoan utzitako dejadaz, ezker gantxoz, bi paretaz, peloteoa luzatuz eta aurkariaren hutsak baliatuz, defentsan lanak ongi eginez eta ahal bezain laster eraso eginez...

2-18koarekin lortu zuten zumaiarrek odol-jarioa etetea. Partida galdutzat ikusten zuten, alde eta aurkako tantoen alde murriztea beste erremediorik ez zeukaten. Artetxeren huts pare bat baliatu zituzten 6-20ko emaitza jartzeko. Ez zuten gehiagotan sakatuko gorriek, Artetxek aurretik galdutako pilota horiek tanto bihurtu zituelako segidan: defentsan bikain aritu eta gero lurretik zabalduko pilota bat aurrea, eta ezker gantxoak bukatzeko. 6-22, eta lehenengo garaipena.

## Bigarren partida ere, zakura

Haritz Urkiak eta Mikel Elolak hartu zieten lekukoa Artetxe eta Katalinari. Kostako beste bikote batekin neurtu zituzten indarrak: Oriotik etorritako pilotariekin, zehatzago esanda. Neurketa horren gidioa aurrekoarenaren oso antzekoa izan zen. Lasarteoriatarrak gehiago izan ziren aurrean eta atzean, eta hori baliatu zuten garaipena zakuratzeko. Izerdi

pixka bat gehiago bota zuten, hori bai. Azkenean, 22-13.

Tartaloetxeren aurka jokatu dute datorren astean. Lehenengo faseko bigarren garaipena lortzeko helburuz jokatu dute Intzako pilotariek.

## Promoioan, bitik bi

Arteaga II.ak garaipenak pilotzen jarraitzen du promozio binakako txapelketan. Urretabizkaiarekin egiten du bikote, baina atzelaria min hartuta dagoenez Etchegoinek ordezkatu zuen. Peña II.a eta Aranguren izan zituzten aurkari. Kostata, baina bigarren partida irabazi zuten segidan, 22-21. Bakaikoa zen aurrelari titularra, baina bera ere lesionatuta dagoenez, Asegarcek erabaki du herritarrak ordezkatzeko.

Arteagak badaki zer den promozio binakako txapela janzea. 2017an Jon Erasunekin osatu zuen bikotea, eta txapelketari irabazi zuten. Iruñeko Labrit frontoian jokatu zuten finala, Peña II.aren eta Ruben Salaverriren aurka. 22-12 gailendu ziren bi gipuzkoarrek. Partidako pilotari onenaren saria ere altxa zuten herritarrak.

## PROMOZIOKO BINAKAKO ARI DA JOKATZEN ARTEAGA; BITIK BI PARTIDA IRABAZI DITU

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

|   |
|---|
| <b>FUTBOLA</b>  |
| ERREGIONALEN GORENGOA   |
| <b>Ostadar SKT - Tolosa CF</b><br>Larunbata. 17:15. Michelin Kirol gunean.        |
| ERREGIONALEN 1. MAILA   |
| <b>Sporting de Herrera - Ostadar SKT</b><br>Larunbata. 15:30. Herrera, Donostian. |
| JUBENILEN OHOREZKO MAILA  |
| <b>Bergara KE - Ostadar SKT</b><br>Larunbata. 17:30. Ipintza, Bergaran.           |
| JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA  |
| <b>Ostadar SKT - Behobia CD</b><br>Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.       |
| KADETEEN OHOREZKO MAILA   |
| <b>Ostadar SKT - Vasconia CD</b><br>Larunbata. 13:30. Michelin Kirol gunean.      |
| KADETEEN 1. MAILA, KOPA   |
| <b>Ostadar SKT A - Ordizia KE</b><br>Larunbata. 12:00. Michelin Kirol gunean.     |
| INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA   |
| <b>Hernani - Ostadar SKT</b><br>Igaandea. 12:30. Zubipe, Hernanin.                |

|  |
|--|
| INFANTILEN 1. MAILA  |
| <b>Urnietako KE - Texas Lasarteerra CF</b><br>Larunbata. 17:30. Urnietako kiroldegian.     |
| <b>Ostadar SKT B - Udarregi Usurbil B</b><br>Larunbata. 10:30. Michelin Kirol gunean.      |
| <b>ARETO-FUTBOLA</b>   |
| HERRIKO TXAPELKETA   |
| <b>Viña del Mar - Izengabe</b><br>Larunbata. 09:15. Michelin kirolgunean.                  |
| <b>Academia London - Asador Irigoien</b><br>Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.       |
| <b>Trumoi Taberna - Avenida Taberna</b><br>Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.        |
| <b>Patricio Cocktail Bar - Bar Buenetxea</b><br>Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.   |
| NAZIONALA 3. MAILA   |
| <b>Antiguoko KE - Alipendi CD</b><br>Larunbata. 19:00. Pio Baroja kiroldegia, Donostian.   |
| GIPUZKOAKO SENIORRA  |
| <b>Aldaz Klinika - Lauburu Berazubi</b><br>Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian. |

|  |
|--|
| <b>Anoeta FT - Garaio Taberna</b><br>Ostirala. 22:15. Abraham Olano kiroldegia, Anoetan.                         |
| GIPUZKOAKO JUBENILAK   |
| <b>Arantzazuko Ama Carrocerias Biyona - Bar Lasarte</b><br>Larunbata. 12:00. Arantzazuko Ama, Donostian.         |
| GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA  |
| <b>Balerdi Harategia - Erain</b><br>Larunbata. 11:20. Maialen Chourraut kiroldegian.                             |
| SASKIBALOA   |
| INFANTIL HANDIAK   |
| <b>Ostadar SKT A - Bergara Soraluze</b><br>Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.                      |
| <b>PILOTA</b>  |
| PROFESIONALAK BIKOTEKA   |
| <b>Arteaga II eta Urretabizkaia II - Agirre eta Savallerria</b><br>Larunbata. 17:45. Labrit pilotalekua, Iruñan. |

|   |
|---|
| UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA   |
| <b>Gure Xeru - Intza 2</b><br>Ostirala. 19:30. Sahatsaga, Getarian.   |
| <b>Tartaloetxe - Intza 1</b><br>Larunbata. 16:30. Zegaman.  |
| <b>IGERIKETA</b>  |
| KLUBEN KOPA   |
| <b>Buruntzaldea IKT-ko absolutu, junior eta infantil mailako igerilariek Euskal Herriko Luzera Handiko Txapelketa jokatu dute.</b><br>Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.                |
| <b>LASTERKETA</b>   |
| VII. GARINGO MENDI LASTERKETA<br><b>Lasarte-Oriako korrikalari batzuk Beasaingo Garin auzoko mendilerroa lasterketa herrikoian parte hartuko dute.</b><br>Igaandea. 12:00. Garingo frontoia, Beasain. |
| <b>ERRUGBIA</b>   |
| OHOREZKO A MAILA  |
| <b>Hernani CRE - FC Barcelona Rugby</b><br>Igaandea. 12:00. Landare, Hernanin.  |

|  |
|--|
| OHOREZKO B MAILA   |
| <b>Urbealde Rugby KE - Babyauto Zarautz RT</b><br>Larunbata. 16:00. Ardanzen, Plentzian.             |
| EUSKAL LIGA  |
| <b>AZ Avia - Babyauto Zarautz Beltzak</b><br>Larunbata. 16:00. San Txime, Igorren.                   |
| 18 URTEZ AZPIKOAK  |
| <b>Babyauto Zarautz Beltzak - Getxo Errugbi Taldea</b><br>Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.         |
| 16 URTEZ AZPIKOAK  |
| <b>Babyauto Zarautz Beltzak - Getxo Errugbi Taldea</b><br>Larunbata. 12:00. Asti, Zarautzen.         |
| 14 URTEZ AZPIKOAK  |
| <b>Babyauto Zarautz Beltzak - Mutriku</b><br>Larunbata. 09:30. Asti, Zarautzen.                      |
| <b>BOLA-JOKO</b>   |
| TALDEKO TXAPELKETA   |
| <b>Ostadar SKTko bola-joko taldeak sailkapen saioa jokatu du.</b><br>Igaandea. Egun osoa. Idiazabal. |

# Garesti saldu du porrota Beltzakek Michelinen

Hiru jokalarik gutxiagorekin jokatu arren, duintasunez eutsi dio Babyautoko B taldeak Bilboko Unibertsitateari. Azkeneko, ordea, nabaritu dute desabantaila (5-48). Ohorezko B Mailako taldeak ozta-ozta irabazi dio Valladolideko El Salvadorri (18-17)

## Txintxarri

Asko saiatu arren, batzuetan ezinezko izaten da helburua lortzea. Horixe gertatu zitzaion aurreko asteburuan Babyauto Zarautz/Beltzak errugbi taldeari Michelinen. Hiru jokalarik gutxiagorekin atera ziren zelaira, hamabirekin. Gainera, aurrean ez zuten edozein talde; Bilboko Unibertsitatea baizik, Euskal Ligako bigarren mailako hirugarren sailkatua. Lasarte-Oriako taldeak lan ikaragarria egin zuen defentsan, eta kosta egin zitzaion bisitariari lerroan barneratzea. Baina ez zen miraririk izan Michelinen; 5-48 gailendu ziren bilbotarrak.

Etxeko taldeak hasieran ondo eutsi bazion ere, minutuak igaro ahala gero eta gehiago nabaritu zuten nekea. Hiru jokalariren hutsunea betetzeko biderkatu egin behar izan ziren, baina azkeneko, amore eman behar izan zuten. Nabarmenezkoa da aurrelarien lana; uztartzea sei lagunek osatu zuten, baina lortu zuten Bilboko zortzi jokalariri eustea. Hiru laurdenekoen presioari esker lortu zuten entsegua, partidaren lehen zatian.

Bigarren zatian ausart jokatu zuten, jakin arren indarrak noizbait agortuko zitzaizkietela. Jokoa aurkariaren zelaira



Defentsa laneta gogor jardun zuten beltzek. TXINTXARRI

eramatea lortu zuten. Baina hiruko jokalarik gutxiago askotxo da; garesti saldu zuten porrota, baina bilbotarrak nagusi izan ziren.

## Egindako lanaz harro

Emaitza gorabehera, Beltzak ez ziren burumakur itzuli aldagelara, berezko desabantaila orekatzeko dena eman baitzuten. Julen Aristorena, Julen Cubreiro, Xabi Prieto, Beñat Arroyo, David Vega eta Gorka Aristondo dira B taldeko Beltzak. Asteburu honetan Igorrera (Bizkaia) egingo

dute bisita, Arratiko Zekorraren aurka jokatzeko. Talde gogorra da bizkaitarra.

Bestalde, Babyauto Zarautzek, Ohorezko B Mailakoak, albiste hobeak ekarri zituen. Valladolideko El Salvador taldeari ozta-ozta irabazi zion Astin, Zarautzen (17-18). Ander eta Xabier Rekondo eta Adrian Apaolaza lasarteoriatarak gogor borrokatu zuten garaipenarengatik. Seigarren postuagatik lehiatuko dute asteburu honetan Plentzian, Uribealdearen aurka.



Ostadarreko aurrelari Vanessa Perez, baloia bereganatzeko lehian. TXINTXARRI

## Azkeneko postuak gero eta urrutiago ditu Ostadarrek

Ohorezko Erregionalak 0-0 berdindu du Goierri Gorriren aurka; lau partida daramatzate urdin-beltzek galdu gabe

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Irabazi ezin duzunean, behintzat ez galdu. Futbol munduko topiko entzunenetako bat da. Ostadar SKT zintzo ari da hori betetzen: azken lau partidetatik hiru berdindu ditu. Puntuak puntu, gero eta urrunago ikusten ditu sailkapeneko azkeneko postuak. Denboraldiko hamalau garrena Goierri Gorriren aurka lortu zuen, pasa den asteko larunbatean, Michelinen. Markagailua ez zen mugitu 90 minutuetan: 0-0.

Zaleek ez zuten golik ospatu arratsalde hotz horretan, baina horrek ez du esan nahi partida aspergarria izan zenik. Kosta zitzaion aukerak sortzen hasia, hori bai. 25. minutuan jaurti zuten aurreneko urdin-beltzek. Vanessa Perez aurrelaria saiatu zen goierritarren atea zulatzen, baina bere ezkerkada arazorik gabe geratu zuen atezainak.

Defentsan apenas sufritu zuen Ostadarrek, atzeko lerroa oso txukun aritu zelako. Norbere atea hutsean mantentzeak aukera gehiago ematen ditu irabazteko, larunbatean lortu ez bazuten ere. Badirudi hori dela Iñigo Sanchez eta Alex Altuna entrenatzaile gazteen asmoa: defentsan sendo aritu, baloia atzetik jokatuta atera eta jokalarik askorekin iritsi aurkariaren areara.

## Jardunaldiak eman duena

Erregional Preferenteak 2-1 galdu zuen Rotetaren aurka. Porrot mingarria izan zen, 88. minutura arte aurretik joan zirelako urdin-beltzak. Bi minututan bi gol sartu zituzten donostiarrek, eta punturik gabe utzi Ostadar.

Iberdrola Ligan, Real bolada onean da berriro. 1-3 irabazi zuen Malagaren aurka. Iraia Iparragirre herritarra 64. minutuan zelairatu zen.

## Urrezko dominarekin itzuli da tatamietara Eizagirre judoka

Espainiako Kopa jokatu du Tortosan. Hurrengoan domina lortuz gero, Espainiako txapelketarako sailkatuko da

## Txintxarri

Min hartuta amaitu zuen denboraldia Eneko Eizagirre LOKEko judokak, baina indarberrituta itzuli da. Sorbaldako ebakuntzaren ondotik lehen txapelketa jokatu zuen

aurreko asteburuan, Tortosan (Katalunia). Espainiako Kopako lehen proban urrezko domina kolkoratu du juniorrak.

Dominaz gain, ranking-erako puntuak poltsikoratu ditu. Jokatutako bi borroka irabazi

zituen, "ondo eta erraz", Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan. Hurrengo Espainiako Kopa Salamancan jokatu du, eta domina lortuz gero, Espainiako txapelketarako sailkatuko litzateke.

Kategoriaz aldatu du LOKEko gazteak. Aurten 100 kilo azpitik mailan lehiatuko du (iaz 90 kilo azpitikoetan aritzen zen).

Edonola ere, koparen aurretik Gipuzkoako txapelketa jokatu beharko du, hurrengo asteburuan.



Eneko Eizagirre, Tortosan, borroka betean. GORKA ARISTEGI

# "Erdi mailako auto batekin aurrean nago"

**AITOR MANSO** KART PILOTUA

Goi mailan lehen denboraldi txukuna osatu du Lasarte-Oriako gazteak. Aurten urrats bat egin nahi du aurrera; Gaztela Leongo txapelketa irabazteko lehiari sartu nahi du

**Adrian Garcia**

Automobilismoan beti ez du onenak irabazten. Askotan emaitzak autoaren araberakoak dira, pilotuaren trebeziak zeresan handia duen arren. Horregatik du meritu handia Aitor Mansok (Lasarte-Oria, 2000) lortutakoa. Lehen denboraldia bete du kartingeko goi mailan. Azken lauzpabost urteetan Euskal Herrian lehiatu du, eta ez du areriorik izan. Lasterketa onak egin ditu goi mailako estreinaldian, eta etorkizunera begira erronkak jarri dizkio bere buruari: Espainiako txapelketa lehiatu nahi du. Otsailaren azken asteburuan hasiko du denboraldia.

**Zer moduz joan da denboraldia?**

Oso ondo joan da, benetan. Kategoria berria izan da niretzat. Denetan altuena da, eta lehenengo urtea izateko oso ondo ibili naiz. Kartingean Espainian ez dago maila altuagoan lehiatzerik.

**Zenbat lasterketa egin dituzu?**

Madrilgo txapelketa ere lehiatu dut. Sei lasterketa egin ditut Gaztela eta Leonen, eta bi edo hiru Madrilan. Han hirugarren eta laugarren egin nuen. Gaztela Leonen, berriz, hirugarren eta bigarren egin dut.



Otsaila amaieran hasiko du denboraldia Aitor Mansok. AITOR MANSO

**Zer gertatzen da Euskal Herrian? Ez al dago lasterketarik?**

2018an ez da egon txapelketa. Azken bost urteetan egon da, eta bostetan irabazi dut. Ez dago fundamentuzko zirkuiturik. Villarcayon, Burgosen, egiten zen Euskadiko txapelketa. Nik hara joan behar dut entrenatzen dudako bakoitzean. Bi ordu baino gehiagoko bidaiak da. Atoiarekin joan beharra dago, karta eramateko.

**Olaberriako zirkuituari zer gertatzen zaio?**

Ez dago baldintza onean. Asfaltatu beharra dago, zulo asko ditu, eta karta oso baxua denez, hondatu egin daiteke. Lurra ukitzen dago denbora osoan.

**Zuek ba al duzue babeslerik?**

Bilatzen hasi gara, baina oraingoz ez dugu ezer lortu.

**Entrenatzailerik ba al duzu? Nork laguntzen zaitu?**

Ez dut entrenatzailerik, nire kabuz entrenatzen dut. Aitak laguntzen dit. Pilotu gehienek mekanikoak dituzte, baina nik

nire aita eramaten dut; mekanikoa da bera.

**Nola sartu zinen automobilismoan? Ez da ohiko kirol bat gaztetxo batentzako, egia esan.**

Nire aitak kart txiki bat erosi zidan, larunbatetan buelta bat emateko. Zortzi urte-edo izango nituen. Gero jaunartzean lehengusuak ekipamendu osoa oparitu zidan: kaskoa, jantzia, eskularruak... dena. Horrela hasi nintzen. Hasieran alokairuko kartekin lehiatu nuen, nirea propioa izan arte. Pixkanaka hasi nintzen mundu horretan sartzen.

**Familian gustukoa al dute motorraren mundua? Haiei esker sartu zinela esan daiteke, ezta?**

Bai, nire lehengusua zirkuitoetan ibiltzen da. Nik esan nienean mundu horretan sartu nahi nuela ez zidaten arazorik jarri, kontrakoa. Oso gustura hartu zuten. Nire aita mekanikoa da, eta pozik hartu zuen nire erabakia. Asko babestu didate. Beste lehengusina bat badut ere, trial egiten du; Espainiako txapelketa da. Motorrak asko gustatzen zaizkie familian.

**Nola entrenatzen zara? Pilotuak kirolari osoak izan ohi dira. Autoz aparte egiten al duzu beste kirolirik?**

Gimnasioa egiten dut. Kategoria hau zaila da, eta besoak eta lepoa asko kargatzen dira lasterketetan. Denbora guztian tentsioan zaude. Ez dira oso luzeak lasterketak, 25 minutu ingurukoak, baina bi txanda jokatzeko dira. Goizean entrenamenduak egoten dira, autoa berotzeko eta pista ezagutzeko. Gero entrenamendu kronometratuak daude. Horien arabera erabakiko dira irteerako posizioak. Eta gero bi lasterketa egiten dira. Azken finean, egun

osoan zaude ibiltzen, eta gorputzak sufritu egiten du.

**Horrez gain, zer landu behar du pilotu batek? Zertan izan behar du ona?**

Kontzentrazioa da kart pilotu baten ezaugarririk garrantzitsuenak, nire ustez. Denbora osoan kontzentratuta egon behar zara. Dena egin behar duzu ongi, hutsegite bat egiten baduzu, aurreratu egiten zaituzte.

**Zein da zure lehiatzeko era?**

Aurreratzeko orduan erasokorra izaten naiz. Baina agian nire ezaugarri nabarmenena da oso konstantea naizela, alegia, itzuli guztiak denbora berberean egiten ditudala. Markatzen dudako erritmoari eutsi egiten diot. Ez dut sekulako bira bat egiten, eta gero moteldu.

**Automobilismoan askotan desberdintasuna autoek eragiten dute. Kartingean ere gertatzen da?**

Bai. Motor ugari daude kartingean. Dirua baduzu, beti egongo zara sailkapenaren goiko aldean. Lasterketetan guk gure autoa eramaten dugu atoaian. Gero karpa muntatu behar dugu, eta beste gauza asko egin. Nik ezagutzen ditudan batzuk autoan iristen dira, haien kaskoa eta jantziekin. Lasterketa egin, eta itzuli egiten dira, beste ezertxo ere ez egin gabe. Aurrean egoteko dirua behar duzu.

**Nolako da zure autoa? Ona al da?**

Erdi mailakoa da, gutxi gorabehera. Ez dago onenen artean, baina ez da guztiz kaskarra. Zaragozan, Fuerako zirkuituan, 175 kilometro orduko hartu ditut gehienez.

**Pilotu ona zarela esan nahiko du horrek, ezta?**

Hori esaten didate, erdi mailako auto batekin aurrean egoten naizelako.

## Presas, Mugerza krosoan

Jon Presa herritarrak eta Trinko triatlotoi taldeko kideak Elgoibarko Mugerza krosoa bukatzea lortu du. Balentria handia da, munduko korrikalari onenetarikoek parte hartzen baitute, eta bikoiztuak diren korrikalariak kanporatuak izaten baitira. Ia erdiak izan ziren kanporatuak igandean. 75. egin zuen herritarrak. Hilaren 27an Donostiako Nazioarteko Krosoan arituko da.



ION ZUGASTI

## Jorge Cid herritarra, garaile Open Sud-Ouest dardo txapelketan

Jorge Cid lasarteoriatarra Pauen, Frantzia, egin den Open Sud-Ouest dardo txapelketan lehiatu du, Errenteriako Iratxoak dardo taldearekin. Binakako mailan, garaipena eskuratu zuen Elias Garciairekin batera, eta taldekako modalitatean, berriz, zilarrezko domina. Emaitza horiek itxaropenez bete dute herritarra, aurtengo denboraldiari begira gauza onak lortzeko.



Jorge Cid txapelketan. J. UNANUE



**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ALOKAIRUAN EMAN

Usurbilen pisua alokatzen da, 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562

### LANA

#### ESKARIA

Astelehenetik ostiralera lan egingo nuke. Telefonoa: 606 97 36 88.

Interna gisa lan egingo nuke. 687 355 095

### SALEROSKETA

#### EROSKETA

Ondo dagoen josteko makina erosiko nuke, lan txikiak egiteko. 687 355 095

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00   | 08:10    | 08:15     | 08:20    |
| 08:40   | 08:50    | 08:55     | 09:00    |
| 10:30   | 10:40    | 10:45     | 10:50    |
| 11:00   | 11:10    | 11:15     | 11:20    |
| 11:30   | 11:40    | 11:45     | 11:50    |
| 12:05   | 12:15    | 12:20     | 12:25    |
| 12:30   | 12:40    | 12:45     | 12:50    |
| 13:00   | 13:10    | 13:15     | 13:20    |
| 13:30   | 13:40    | 13:45     | 13:50    |
| 16:30   | 16:40    | 16:45     | 16:50    |
| 17:00   | 17:10    | 17:15     | 17:20    |
| 19:30   | 19:40    | 19:45     | 19:50    |
| 20:00   | 20:10    | 20:15     | 20:20    |

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

#### Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Ibarburu, Naiara Goikoetxea.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia





**Landaberri**  
IKASTOLA  
LASARTE-ORIA

Zure herrian bertan, euskaraz

# MATRIKULAZIOA:

urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra



## ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUTAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

- 2 urtetik aurrera
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza: Ingelesa 4 urtetik aurrera
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
  - Gela egokituak
  - Laguntzako irakasleak
  - Aholkulariak
- Bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08.00etatik 09.00etara harrera zerbitzua
- Jangela zerbitzua HH3tik aurrera.

## BILERA

HH eta LH:

**urtarrilaren 24an, osteguna, 15:30ean**

Garaikoetxea eraikineko soinketa gelan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikula

Garaikoetxea eraikinean (Atsobakar 3)

Tel: 943 37 06 62 landabulego@gmail.com

Ordutegia: 09.00etatik 13.00etara